

IKERKETA KUALITATIBOAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN AGIRIAK, EUSKARA EZ DAKITEN NAFARROAKO BIZTANLEEI EUSKARAREN GAINEN INFORMAZIOA EMATEA ETA HIZKUNTZAREKIKO SENTSIBILIZATZEA HELBURU DUEN KOMUNIKAZIOA ESTRATEGIA BAT PROPOSATZEKO
--

1.GAIA

Dokumentu honetan arautzen dira aldeek alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko eta teknikoetan dituzten eskubide eta betebeharrak zehazten dituzten itun eta baldintzak, zeinak kontuan hartu behar baitira euskara ez dakiten Nafarroako biztanleei euskararen gaineko informazioa ematea, eta hizkuntzarekiko sentsibilizatzea helburu duen komunikazio estrategia berri baten proposamena egiten duen azterketa kualitatibo bat kontratatzeko.

Dokumentu hau zerbitzu kontratatutzat jotzen da eta ematen diren prestazioak “85312320-8: aholkularitza zerbitzuak” kategoriakoak dira, Europako Batzordearen 2013/2008 (EE) erregelamenduan ezarritako CPV sailkapenaren arabera.

Kontratua administratiboa izanen da eta kontratugileak honako hauen mende geldituko dira: baldintza agiri honek ezartzen duena, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Lote bakarra eskaintzen da; izan ere, egin beharreko lanak prozesu beraren parte dira, eta lotura banaezina dago haien artean.

2. EGIN BEHARREKO LANEN BALDINTZA TEKNIKOAK

Lizitazio honen xedea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean eta Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 6ko 303/219 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat dator.

Komunikazioaren ohizko egiturak azken urteotan aldatu egin direla kontuan hartuta, kontratuaren xede den ikerketak estrategia berri bat planteatzeko erabakigarriak diren elementu eta faktoreak bilatuko ditu, Nafarroako eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko eskualde jakin batzuetan bizi diren, eta euskara ez dakiten biztanleen artean. Kontratu honen helburua ez da komunikazioko kanpaina eta proiektu instituzionalen azterketa egitea, euskara sustatzeko metodologia eta komunikazio produktu berriak proposatzea baizik.

Azterlanaren zehaztapen geografikoari dagokionez, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformari buruzko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean definitutako eskualdekatzea hartu da kontuan. Ikerketarako hautatu diren eskualdeak honako hauek izan dira: Iruñerriko Eskualdea (Metropolialdea), Estellerriko Eskualdea (Estellerriko Erribera eta Montejurra), Izarbeibar-Novenera Eskualdea, Zangozerriko Eskualdea eta Erdialdeko Eskualdea; eta Erriberako Eskualdea eta Erriberagoienako Eskualdea.

Ikerketaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- 1) Euskara ez dakiten eskualde zehaztetako biztanleek hizkuntza horri buruzko informazioa jasotzeko edo hizkuntza horrekin harremana izateko (idatzizkoa edo ikus-entzunezkoa) bitartekoak (komunikabideak, gizarte- sareak, publizitate-euskarriak ...) zein diren identifikatzea.
- 2) Euskara ez dakiten biztanleek, euskararen gaineko sentsibilizatzea helburu duten hedabideei buruz dituzten jarrerak eta iritziak aztertzea (zer interes sortzen dion, zer ezaugarri edo eduki baloratzen dituen ...).
- 3) Euskara ez dakien biztanleria horren informazio-kontsumoaren ohiturak ezagutzea, iturri nagusiak eta pertsona horientzat interesgarrienak diren edukiak identifikatuz.
- 4) Aurrekoa kontuan hartuta, euskara ez dakien biztanleriari hizkuntzaren inguruko informazioa emateko eta sentsibilizatzeko komunikazio estrategia eraginkorrak (moduak, produktuak, euskarriak ...) proposatzea.

Landa lana eta txostenak burutuko dituen talde tekniko bat egongo da, eta beharrezkoa izanen da bi teknikarik gutxienez euskararen ezagutza ona, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia esparru Batuaren C1 maila, egiaztatzea.

Ikerketa gauzatzeko erabiliko den metodologia, metodologia kualitatiboa izango da eta hau gauzatzeko erabiliko diren tresna metodologikoak eztabaida-taldeak eta adituei egindako elkarrizketak izango dira.

- Eztabaida taldeak. Eztabaida taldeen bitartez, aztertuko den gaiaren arlo garrantzitsuenak ezagutu eta gai horren inguruan egon daitezkeen iritzi eta diskurtso sozialak aztertuko dira. Honekin batera, solaskideentzat adierazgarria dena ezagutuko dute eztabaida taldeetan parte hartzen duten moderatzaileek.
- Eztabaida-taldeetan 8-10 pertsonak parte hartuko dute, eta, nolanahi ere, gutxienez 8 pertsonak egon beharko dute. Burutuko diren talde kopurua, gutxienez 12 izango da eta kopuru hori edozein kasutan enpresak handitu ahal izango du. Elkarrizketatutako pertsonen dagokionez, lehenengo puntuan zehaztutako eskualdeak eta azpieskualdeak kontuan hartuta, honako hauek

izango dira: 2 eztabaida talde Iruñerriko Eskualdean (Metropolialdea), 2 eztabaida talde Estellerriko Eskualdean (Estellerriko Erribera), 2 eztabaida talde Estellerriko Eskualdean (Montejurra), 2 eztabaida talde Izarbeibar-Novenerako Eskualdean, 2 eztabaida talde Zangozerria eta Erdialdeko Eskualdeetan eta 2 eztabaida talde Erribera eta Erriberagoienako Eskualdeetan. Aipatutako azken bi eskualde multzoen kasuan, eztabaida talde bat egingo da eskualde bakoitzean.

- Eztabaida taldeetatik lortutako edukia aztertzeke eremu soziolinguistikoak banatzeko ezarritako soziolinguistika irizpidea hartuko da kontuan. Beraz, ikerketa burutzeko aukeratu diren eskualdeak hauek duten euskaldunen kopuruaren arabera hautatu egin dira eta hiru eremu soziolinguistikoen arabera sailkatu dira: 1A, eremu soziolinguistikoa, euskaldunen portzentajea %0 - %4,9 bitartean duten eskualdeak; 1B eremu soziolinguistikoa, euskaldunen kopurua %5 - %9,9 bitartean duten eskualdeak; eta 1C eremu soziolinguistikoa euskaldunen kopurua %10 - %19,9 bitartean duten eskualdeak. 1A eremuaren barruan sartzen diren eskualdeak Erribera eta Erriberagoiena, Zangozerria, Erdialdea eta Estellerriko Eskualdea (Estellerriko Erribera) dira. 1B eremuaren barruan Izarbeibar –Novenera eskualdea eta Estellerriko Eskualdea (Montejurra) sartzen dira. Azkenik, 1C eremuan Iruñerriko Eskualdea (Metropolialdea) sartzen da.
- Parte hartzen duten solaskideen diskurtso sozialak ondo ezagutzeko, eztabaida taldeak osatzean bilatuko diren aldagai nagusiak honako hauek izango dira: adina (18 eta 50 urte bitarteko pertsonak, bi taldetan bereizita: 18 – 34 urte eta 35 – 50 urte.), jatorria (soziokulturala), sexua eta maila sozioekonomikoa.
- Adituei elkarrizketak. Gutxienez, 6 elkarrizketa. Elkarrizketen kasuan kontuan hartuko da elkarrizketatutako pertsonak ospe handikoak izatea Nafarroan, komunikabideen eta komunikazio-estrategien mundua ezagutzen dutelako eta bertan adituak direlako. Lehentasuna izango dute aztergai diren eskualdeetan bizi direnek eta inguru horretako egoera soziologikoari buruzko ezagutzak dituztenek.
- Eztabaida-taldeen eta elkarrizketen gidoiak aldeztu aurretik adostuko dira azterlana kontratatu duen entitatearekin, hau da, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin. Gidoiak erdi egituratuak izango dira eta gai-ardatz batzuk aurkeztuko dituzte moderatzaileek landuko diren gai ildo nagusiak jorratzeko, eta puntu nagusien inguruan solasten dela bermatzeko.
- Grabazioak eta transkripzioak. Grabazio guztiak euskarri digitalean grabatuko dira gerora landu ahal izateko, eta hitzez hitz transkribatuko dira.

- Diskurtsoaren analisia. Adituei egindako elkarrizketak eta eztabaida taldeetan lortutako informazioa transkribatu ondoren, lortutako diskurtsoak aztertuko dira.
- Enpresak, eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan parte hartu duten pertsonen adierazitako diskurtsoen gaineko azterketa soziologikoa egin beharko du, pertsona horiek hautatzeko aurrez ezarritako aldagaiak kontuan hartuta.
- Enpresa lizitatzailleak landa-lanari buruzko informazio garrantzitsuena (eztabaida- taldeen eta elkarrizketen grabazioak eta transkripzioak) erakusten dituzten artxiboak eman beharko dizkio Euskarabidea – Nafarroako Euskararen Institutuari.
- Bukaerako txostena. Bukaerako txostena euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan aurkeztu beharko da euskarri berezietan. Txostenak ikerketa lanaren ildo nagusiak bilduko ditu, hala nola, helburu nagusi eta helburu espezifikoak, metodologia, landa lanaren prozedura, emaitzen azterketa, ondorioak eta komunikazio estrategiaren edo komunikazio estrategien proposamena. Analisiaren atalean, lehenik eta behin, analisiaren lehen atalean, puntu honetan aipatutako 1, 2 eta 3 helburu espezifikoek dagokiona aurkeztuko da; eta hurrengo atal batean 4. helburu espezifikoan azaldutako komunikazio- estrategien proposamena. Gidoiak eta informazio gehigarria eranskinetan sartuko dira.
- Dokumentazioa (Word eta pdf.) formatuetan emango da, baita paperean ere dokumentazio guztiaren ale bat.
- Erredakzio elebidunerako ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresnaren bat erabiltzen bada, tresna horren erabileraren ondorioz lortutako dokumentu elebidunak emango dira, xiff edo bak formatuan.
- Dokumentuak idaztean hizkera ez- sexista erabiliko da.
- Pertsona eta enpresa adjudikaziodunak espresuki onartzen du egindako lan guztien dokumentuak eta emaitzak eta haien jabetza intelektuala Nafarroako Gobernuaren jabetza eskusiboa direla, eta osorik edo partez erreproduzitu edo zabaldu ahal izanen dituela. Orobat, enpresak uko egin beharko die kontzeptu horien gaineko eskubide guztiei, eta soil-soilik erabiltzen ahalko ditu, etorkizuneko lanen erreferentziatako, Nafarroako Gobernuaren berariazko baimena badu.
- Koordinazio eta jarraipena. Pleguen lehen puntuan adierazi den bezala, enpresa lizitatzaillearen eta Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuaren arteko koordinazioa funtsezkoa izango da ikerketa prozesu osoan zehar. Zenbait bilera egingo dira lana koordinatzeko, eta enpresak lanaren inguruan egin dituen aurrerapenak erakutsi ahal izateko. Era berean, enpresak txosten bat aurkeztuko

dio Euskarabideari astero, epe tarte horretan egin dituen urratsik esanguratsuenak azalduz.

- Enpresa lizitatzaillearen eta Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuaren artean lan koordinatua egin ahal izateko, enpresak berak ikerketa proiektuan zehar egingo dituen lan guztien kronograma bat aurkeztuko du, asteko txostenarekin batera.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua prozedura irekia erabiliz adjudikatuko da, bat etorriz Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoarekin. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Kontratua betetzeko epea sinatzen den egunean hasiko da eta 2022ko abenduaren 10ean amaituko da.

6. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 32.182,15 eurokoa da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. Artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, eta lizitazioaren gehieneko aurrekontua 38.940,40 eurokoa da (BEZa barne).

Gastua egotziko zaio 2022ko gastuen aurrekontuko (RE) *Euskararen Plan Estrategikoa*. *Azterketa eta Euskararen Adierazle Sistema* izeneko B30002-B3200-2276-334100 partidari.

7. LIZITATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Hautapen prozesuan parte hartzen ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatzeke debekurik edo bateraezintasunik ez badute eta interes gatazkan ez badaude. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa-elkarteekin edo taldean parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Baterako parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez egiaztatu beharko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bai eta bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalzun bakarra izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura azkendu arte.

Aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren edo batera parte hartzen duten lizitatzailleek betebeharrak solidarioa izango dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu sorta berean, ez eta aldi baterako beste elkarte batean sartuta edo beste enpresa batzuekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzaille arau-hausleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkarteetan aurkezten diren enpresak eta taldean parte hartzen duten pertsonak adierazi beharko dituzte batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako elkarte gisara formalki eratzeke kontratuaren adjudikaziodun izatekotan. Kide bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek egiaztatuko dira lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpenarekin. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzailleak kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa aski duela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia eta finantza egoera egokia duela,

halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratua behar bezala egikaritzea.

Kontratu honetan, egiaztapen hori egingen da kontratuaren xedearen antzekoa edo goragokoa den jarduera-arloko negozio bolumenari buruzko azken hiru ekitaldietako (2019, 2020 eta 2021) adierazpenaren bidez. Aipaturiko adierazpena I. eranskinean txertatuko da. Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatuko dira batera aurkezten diren enpresetako edozeinek emandako datuekin, edo enpresa guztien datu metatuekin.

9. KAUDIMEN TEKNIKOA

Lizitatzailleak kaudimen teknikoa duela frogatu beharko du, hau da, kontratua behar bezala egikaritzeko gaitasun tekniko edo profesionala duela.

Kaudimena egiaztatzeko, erakunde lizitatzailleak aurkeztu behar du 2019an, 2020an eta 2021ean eman dituen zerbitzu nagusien zerrenda; zerbitzu horiek, betiere, izan behar dituzte kontratu honen xedearen ezaugarri berak edo antzekoak. Zerrenda horretan xehetasun hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, data, eta zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua, betiere guztira lizitazio honetarako aurreikusitako aurrekontuaren zenbateko berdina edo handiagoa osatzen badute, eta hartzaileak behar bezala gauzatu izanaren ziurtagiriek abalatuta.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrendako egindako zerbitzuak aipatzea.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

10.1 Tokia eta epea

Proposamenak Lizitazio Elektronikoren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina, PLENA) bidez soilik aurkezten ahalko dira; era berean, PLENAREN bitartez egingen dira komunikazio oro eta interesdunek egin beharreko gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENARA; handik, interesa duen edozein pertsonak deskargatzen ahalko du

mahaigaineko aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun azal digitalaren bidez, bai eta biltegi seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENaren bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa eginen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitaziorako iragarkian finkatuko da, eta gutxienez 15 egunekoa izan beharko da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, baliozkotu eginen da arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu; eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barnean jaso bada, baliozkotzat jo eta ireki eginen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu, edo eskaintza jaso bada luzatutako 24 orduko epetik kanpo, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailleak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntan gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzaillearen ezagutza ezak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta lizitazio prozeduratik baztertea ekarriko dute; gauza bera gertatuko da eskaintzak ezarritako bidea ez den batetik aurkeztuz gero.

10.2 Proposamenen forma eta edukia

Enpresa lizitatzailleek Lizitazio Elektronikoaren Plataformak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak enpresa lizitatzaillearen mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztu ondoren biltegi seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon beharko dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazioaren Plataforman jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaille batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari eranstean zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-eko tamaina izanen du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, barneko dokumentu guztiak barne, 100 MB-eko izanen da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakiokkeen fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu plataformak eskaintzaren aurkezpenean eranstean diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); artxibo konprimitu batean (ZIP) sartuz eranstean ahalgo dira bestelako formatuak dituzten artxiboak.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa lizitatzailleak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork egin duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki enpresaren edo entitatearen ahalordedunaren ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izanen litzateke.

- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalordedunak edo ahalordedunek sinatutako dokumentu elektronikoak eranstean dira.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzailleak agiri honetako klausulak onartzea salbuespen edo erreserba bakarrik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, bertan adierazteko aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailleak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da eta eskaintza aurkeztu duela egiaztaturik geldituko da. Lizitaziorako plataforman (PLENA) eskaintza aurkeztean akatsik eginez gero, 24 orduko epea izanen da eskaintza osoa hartzeko, PLENAREN bitartez, eta aurkezpena osatutzat hartu ahal izateko. Horretarako baldintza izanen da posta elektronikoaren bidez arrastoa igorri izana kontratazio organoari, gonbidapenean harremanetarako ezarritako

helbidera, eskaintzak aurkezteko epearen barnean. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfasea ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 segundo. Hori izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilen)

- Bigarren mailako iturriak:

- canon.inria.fr, INRIA, Paris

- i2t15.i2t.ehu.es, UPV-EHU

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzailleen proposamenak, eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio orokorra.

- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak

- C gutun-azala: Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A. Gutun azala: "Dokumentazio orokorra"

Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek frogatzen dituenak: administrazioarekin kontratatzeko beharkizun orokorrak, nortasuna, gaitasuna eta kaudimena. Horretarako, I. eranskinean ezarritako eredua erabiliko da, eta agiri honen 9. atalean eskaturiko kaudimen teknikoaren egiaztagiria aurkeztuko dira horrekin batera.

Aipaturiko adierazpenean, nahitaez paratu beharko da helbide elektroniko bat, jakinarazpen telematikoak jasotzeko.

- Batera parte hartzen duten pertsonen kasuan, zenbat pertsona hainbat adierazpen aurkeztu beharko dira. Gainera, agiri pribatu bat gehituko da, non lizitatzailleek adierazi behar baitute batera aurkeztu nahi dutela, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu, kontratuak azkendu arte sortzen dituen eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen. Enpresek eta ahaldunak sinatu beharko dute agiri hori.

- Azpikontratazioetan, lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko du, batetik, azpikontratisten zerrenda eta, bestetik, baduela agiri bat egiaztatzen duena konpromiso formal bat dagoela enpresa azpikontratista kontratua egikaritzera behartzeko ahalmena duten pertsonekin.

B. Gutun-azala: "Irizpide kualitatiboak"

Gutun-azal honetan, lizitatzailleak aurkezten duen egitasmoaren dokumentazio tekniko guztia egonen da, Kontratuei buruzko Foru Legearen 97. artikuluekin bat. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Enpresak bigarren puntuan aipaturiko helburuetara eta baldintza teknikoetara egokitutako lan proposamen bat aurkeztu beharko du. Proposamenetan, txostenaren hasieran azarritako xedea eta helburu zehatzak sartu beharko dituzte eta egokitutako joz gero, xede nagusiarekin erlazio zuzena izan dezaketen beste helburu batzuk ere aurkezteko aukera izango dute.

C. Gutun-azala: "Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak"

Gutun-azal honetan adieraziko dira eskaintza ekonomikoa eta formulen edo puntuazio objektiboaren bidez objektiboki zenbatestekoak diren irizpideei buruzko eskaintza.

Lizitatzaille bakoitzak agiri honen II. eta III. eranskinetan ezartzen diren ereduaren arabera jasoko ditu eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei dagokiena.

Proposamen ekonomikoa (III. eranskina) behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzailleak edo hura ordezkatzeko duenak, eta ezin izanen du gainditu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, eta sortzen den zeinahi gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzailea gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere; finkaturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere apalagoak izan hitzarmeneko orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskaintako prezioaren kalkuluak barne hartuko ditu jarduera egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak; besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Nafarroako bulego eta langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik badaude.

11. PROPOSAMENAK BALORATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA

Unitateko teknikariei dagokie, lizitatzailerak onartzea, eskaintzak baloratzea eta esleipen-proposamena egitea.

12. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, unitate kudeatzaileak A gutun azalean aurkeztutako administrazio dokumentazioa kalifikatuko du.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edota zalantzaren bat sortzen bada, Lizitazio Plataformako jakinarazpenen modulua baliatuz eskatuko zaio eskaintza aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita. Izapide honetan aurkeztutako dokumentazioak ezin izango ditu inola ere aldatu eskaintzaren baldintzak.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, unitate kudeatzaileak onartutako enpresen B gutun-azala, “ Irizpide kualitatiboak” , ireki eta baloratuko ditu, aipatutako adjudikazio-irizpideen arabera.

Eskaintza kualitatiboen balorazioa egin ondoren, Lizitazioaren Plataforman jasoko da enpresa lizitatzailerak aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, honako datu hauek zehaztuz: onartu diren eta onartu ez diren proposamenak, ez onartzearen arrazoiak eta irizpide kualitatiboen gainean unitate kudeatzaileak eginiko balorazio teknikoaren emaitza.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Sorta bakoitzaren kontratuaren adjudikazioa egingen da kostu-eraginkortasun irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboek jarraikiz, adjudikazioa proposamen onuragarrienari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

13.1 Irizpide kualitatiboak: proiektuaren balio teknikoa, gehienez ere 50 puntu.

Ikerketaren koordinazioa	40
Eztabaida- taldeak eta elkarriketak egiteko baliabideak (baliabide propioak eta kanpokoak) (10 puntu gehienez).	10
Saioetarako gidoiak proposatzea (10 puntu gehienez)	10
Azterlanerako pertsonak eta taldeak hautatzeko proposamena. (10 puntu gehienez).	10
Diskurtso sozialak aztertu eta interpretatzeko erabiltzen diren teknikak eta tresnak (10 puntu gehienez)	10
Balio erantsia:	10
Gehieneko puntuazio hori proposamen metodologikoan hobetzeko elementu eta idea berritzaile gehien aurkezten dituen eskaintzari emango zaio.	
Gainerako proposamenek hiruko erregela zuzen hau aplikatu ondoren ateratzen den puntuazioa izanen dute: 10 bider baloratutako enpresaren ekarpen-kopurua zati kopuru handiena duen enpresaren ekarpen-kopurua	

13.2 Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak: gehienez ere 50 puntu.

Eztabaida taldeak eta adituei elkarriketak	20
Gutxienez 12 eztabaida-talde egin beharko dira. Kopuru horretatik aurrera, 2,5 puntu emango dira eztabaida-talde gehigarri bakoitzeko (gehienez 10 puntu).	10
Gutxienez 6 elkarriketa egin beharko dira. Kopuru horretatik aurrera, 2,5 puntu emango dira elkarriketa gehigarri bakoitzeko (gehienez 10 puntu)	10

Irizpide sozialak: - Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa (18 – 30 urte): 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartzen den emakume bakoitzeko. Gehienez ere 5 puntu arte. - Desgaitasuna dutenak kontratatzea: 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartuz gero gutxienez ere pertsona bat % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duena. Gehienez ere 5 puntu arte.	10 5 5
Eskaintza ekonomikoa	20
Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute: $\text{Puntuak} = \frac{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Lizitazioaren proposamen ekonomikoa}) \text{ BEZik gabe}}{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Gutxienezko aurrekontua}) \text{ BEZik gabe}} \times 20$ Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko du.	

13.3. Eskaintza baxuegiak

Eskaintza baxuegitzat joko da lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

13.4 Bi lizitatzailek edo gehiagok puntuazio bera lortuz gero

Bi enpresa lizitatzailek edo gehiagok berdinketa eginez gero, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 99. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Beraz, berdinketa gertatzen bada, genero berdintasunaren arloan praktika onak egin direla frogatzen duen enpresaren alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu ere, %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresaren alde egingo da, betiere enpresako langileen %3k, gutxienez, desgaitasunen bat baldin badu, kaudimena egiaztatzen duen unean, eta, halakorik ezean edo berdinketa irauten badu, behin behineko langileen ehuneko txikiena duen enpresaren alde, baldin eta ehuneko hori %10etik gorakoa ez bada. Hala ere, berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez erabakiko da.

Berdinketa gertatuz gero, kudeaketa unitateak behar den dokumentazioa eskatuko die ukitutako enpresei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die aurkezteko.

13.5 Adjudikazio proposamena

Unitate kudeatzaileak puntuazio handieneko proposamenaren aldeko adjudikazioaren proposamena igorriko dio kontratazio organoari.

14. ADJUDIKAZIO- HARTZAILE GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Behin adjudikazioaren proposamena jakinarazi ondoren, proposatutako lizitatzailleak 7 egun naturaleko epean aurkeztu beharko du ondoko dokumentazioa:

a) Nortasuna frogatzen duen dokumentazioa:

- Lizitatzaila pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala edo araudiaren arabera hura ordezkatzen duen agiria.
- Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, eratzeko eta, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko dira, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ordezten den pertsonaren ahalorde askietsia eta nortasun agiri nazionala. Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko da, betebehari hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzailleak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizuneko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago

egina, lizitatzailleak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzen duena.

c) Lizitatzailleak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Agentziak edo foru ogasunek egina.

d) Adjudikazio-hartzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egina.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, adjudikazio-hartzailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Unitate kudeatzaileak behar den esleipen-proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailen lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz eta adieraziz, hala behar badu, eskainitako zer hobekuntza eman diren ontzat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoitu beharko da, bai eta lizitatzaille guztiei jakinarazi ere; gainera, horren eragingarritasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita, eskaintza bakarra aurkeztuz gero izan ezik.

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 5 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

16. KONTRATUA GAUZATZEA

16.1. Kontratua Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrolpean gauzatuko da.

Lanak egikarrituko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak

Administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

16.2. Adjudikazioa-hartzailea izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra, eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanekin izanen Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuarekin.

Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuk beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkatzeko ditzan, non eta bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbesteko kalitate mailarekin ematen.

16.3. Kontratatzeko diren lanak egiteko behar diren langile guztiak euskara maila asko izan beharko dute esleitutako lanak egiteko; gomendatzen da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara titulua izatea.

Enpresa beharturik dago kontratu hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, laneko bulegoa, aretoak, eta langileak ekartzea.

16.4. Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutua aske gelditzen da, ondorio guztietarako, enplegatutako langileekiko zernahi harreman funtzional, organiko edo lanekotik, kontratuaren indarraldian zein behin kontratua burututakoan.

16.5. Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua gauzatzearen ondorioz ekoitzi edo zabalduko zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio edo informazio materialetan adierazi beharko da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela eta Nafarroako Gobernuaren sinboloa azaldu beharko da, baita Euskarabidea- Euskararen Nafar institutuaren aipamena ere, erakunde kontrolatzailea den aldetik.

17. LANEN ORDAINKETA

Ordainketa bakarra egingen da, lana burututakoan. Ordainketa hori, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak egiaztatuko du lana behar bezala bete dela. Horretarako, enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratuaren arabera gauzatutako lanen memoria bat aurkeztu beharko du 2022ko abenduaren 10a baino lehen, dagokien fakturarekin batera. Memoriak jardueraren inpaktua neurtzen lagunduko duten datu objektibo eta kuantifikagarriak jaso beharko ditu (adibidez: parte hartzaile kopurua).

18. KONTRATUA BETETZEA

Pertsona edo entitate adjudikazio-hartzaileak ekintza eta ikastaro guztiak gauzatu beharko ditu kontratuaren epean eta kontratazioa zuzentzen duten agiriei eta eskaintzaren edukiari jarraiki.

Kontratua bete dela egiaztatuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren oniritziarekin.

18.1. Ez-betetzeak.

Kontratistaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Agiri honetan eskatutako langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin egikaritzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratua kudeatzen duen unitateak emandako aginduak ez betetzea, hura egikaritzeari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

18.2 Zehapenak

Kontratistaren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1 gehienez.

b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5eraino, kontuan hartuta kontratistaren zabarkeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 5etik % 10eraino, kontuan hartuta kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 adinakoa izaten ahalko da, foru lege horren 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiago izanen. Ez-betetzeak eragindako

zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagoak direnean, hasten ahalko da kontratatzeke debekua deklaratzeko prozedura.

18.3. Arriskua eta mentura.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratistaren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguru egiteko aukera.

18.4. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak.

Kontratistari egozten ahalko zaizkio kontratua egikaritzearen ondorioz jabetzaren nahiz hirugarrenen ondasun eta pertsonen eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak. Foru Komunitateko Administrazioak bakarrik erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik.

18.5. Kontratistak lan araudia betetzea.

Kontratu horrek errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

19. JABETZAI INTELEKTUALA

Adjudikazio-hartzaileak espresuki onartzen du egindako lan guztien dokumentuak eta emaitzak eta haien jabetza intelektual Nafarroako Gobernuaren jabetza eksklusiboa direla, eta Nafarroako Gobernuak osorik edo partez erreproduzitu ahal izanen dituela. Enpresa kontratatutak uko egin beharko die kontzeptu horien gaineko eskubide guztiei, eta soil-soilik erabiltzen ahalko ditu etorkizuneko lanen erreferentziatako.

20. DATUAK BABESTEA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa edo pertsona adjudikazio-hartzaileak konpromisoa hartuko du isilpekotasunez eta lanbideko sekretua gordez jarduteko, laguntzaren xede diren datu eta agiriak dagokienez. Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrendak oro Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen ditu erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak ezin izanen ditu egiten dituen lanen agiriak eta emaitzak baliatu, ezta etorkizuneko lanerako erreferentzia edo oinarri gisa ere, ez badu

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren baimen berariazkoa eta idatzia lortzen horretarako. Baimen berariazkoa eta idatzia beharko du, orobat, ematen zaion informazioa beste entitate publiko nahiz pribatu bati helarazteko.

Gai honi dagokionez, bete beharko da Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege organiko hori garatzeko erregelamendua onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa, bai eta horiek ordeztzen edo aldatzen dituen zeinahi beste arau.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta suntsitzeaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztzeko, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztzen ahalko dute kontratazio agirien aurka, izapide egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioz lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztzen ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN **KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.**

..... jauna/andreak, zenbakidun
NANa duenak,-(a)ren ordezkari
(.....IFK), / bere izenean (ezabatu behar ez dena), bere
erantzukizunpean adierazten du:

1.) Berak edo ordezkatzeko duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.

2.) Kontratazioa arautzen duten agiriak ezagutzen eta onartzen dituela eta horiek gauzatzeko hitza ematen duela, baldintzei hertsiki loturik.

Lote bakarra

3.) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan kontratatzeke debekurako ezarritako zergatietako batean sartuta.

4.) Eguneratuak dituela Gizarte Segurantzaren eta zerga arloko bere betebeharrak guztiak.

5.) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta kontratuaren xede diren jardueren esparruko negozio bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietan, honako hau delarik:

URTEA	ZENBATEKOA
2019	euro
2020	 euro
2021	 euro

6) Betetzen dituela kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eskaturiko lege baldintzak.

7.) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak eta, ondorio horietarako, adierazten du ondoko zerbitzuak bete dituela:

URTEA	GAIA	HARTZAILEA	ZENBATEKOA
2019			
2020			
2021			

*Nahitaezkoa da adierazpen honekin batera zerbitzuen frogagiriak aurkeztea, lan horien hartzaile izan diren entitateek emanak.

8.) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko gorabehera guztietarako, legokiokoen jurisdikzio-foruari uko eginik.

9.) Helbide elektroniko hau ematen duela, prozeduraren zeinahi faserekin loturiko jakinarazpenak bide telematikoen bidez jasotzeko ahal izateko:

.....

10.) Aurreikusten duela ondoko prestazioak azpikontratatzeko. Ondorio horietarako, azpikontratisten adostasun adierazpenak atxikitzen dira (soilik azpikontratazioa aurreikusten bada).

PRESTAZIOA	AZOIKONTRATISTA

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, eguna eta sinadura)

II. ERANSKINA

FORMULA BIDEZ ZENBATESTEKOAK DIREN IRIZPIDEAK

EZTABAIDA TALDEAK ETA ELKARRIZKETAK (20 puntu)	
Eztabaida- talde gehigarrien kopurua, pleguan eskatutako 12 taldeetatik aurrera (10 puntu gehienez)	
Eztabaida- taldeen kopurua, guztira	
Adituei egindako elkarrizketen kopurua, pleguan eskatutako 6 elkarrizketetatik aurrera. (10 puntu gehienez)	
Adituei elkarrizketen kopurua, guztira	
IRIZPIDE SOZIALAK (10 puntu gehienez)	Izen abizenak
Langabezia dauden emakume gazteen kontratazioa (18 – 30 urte): (5 puntu gehienez).	
Desgaitasuna dutenak kontratatzea: (5 puntu gehienez)	

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Izena: _____ NANA edo IFZ: _____

Helbidea: _____ Telefonoa: _____ nire izenean edo

honen izenean: _____ arituz, proiektua eta administrazio klausulen

agiria ezaguturik euskara ez dakiten nafarroako biztanleei informazioa eman eta

hizkuntzaren gaineko sentsibilizazioa sustatzeko komunikazio estrategiaren

proposamena egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua kontratatzeko, hitzematzen dut

zehatz-mehatz beteko ditudala baldintza horietan ezarritakoa eta, orobat, eskaintza hau

egiten dut:

PREZIOA

Lote bakarra _____ euro (gehi BEZa).

Iruñean, 2022eko

aren

(e)an

IV. ERANSKINA

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU
ADIERAZTEKO***

Izena: _____ NAN zenbakia: _____ ,
Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzzaileen Erregistroan _____
zenbakiarekin izena eman duen enpresaren _____ gisa (1), neure
erantzukizunpean aitortzen dut Lizitatzzaileen Erregistroak dituen enpresaren datuak
indarrean daudela eta ez direla deus ere aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko
Lizitatzzaileen Erregistroko izena ematearen ziurtagirian, _____ zenbakiko
espedientean, agertzen direnak berak direla. Ziurtagiria agiri honi erantsia dago nafarrek
euskararekiko duten pertzepzioaren eta jarreraren gaineko azterlan kualitatiboa
kontratatzeko lizitazioan parte hartu ahal izateko.

(1) Adierazi administratzailea ala ahalduna den.

(tokia, data eta sinadura)

* Argibide gehiago: www.navarra.es (urratsak: zerbitzuen katalogoan, kontratazioen barruan eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzzaileen Borondatezko Erregistrora)

V. ERANSKINA

BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

.....jaun/andreak,NANa/IFZ duenak,
jakinarazpenetarako helbide hau duenak:
.....
....., PK:, herria:, telefonoak:
....., bere izenean /
sozietatearen ordezkari gisara (dagokion bezala), IFZ:

Eskaintza batera parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztuz gero,
adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.

☐ Bai ☐ Ez

Taldean batera aurkezten dira. Halakoetan, adierazi bakoitzaren parte-hartzea.

☐ Bai ☐ Ez

Enpresaren izena..... ⇒Participación%

Enpresaren izena..... ⇒Participación%

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzeke debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i) artikuluan).

(Tokia, eguna eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)